

Trapagarango (Bizkaia) udal liburutegia instalazio berrietara aldatzeko lanak burutzen ari da

Liburuak lekuz aldatzeko oso antolakuntza zehatza jarraitu behar da, 11.000tik gora direlako, katalogaturiko materia guztiak ongi kokatuko badira. Liburutegian sartzen den liburu bakoitza sailkatu egiten da bere deskribapenaren arabera eta nazioarteko zenbaki bat ematen zaio - liburutegiko SHU (Sailkapen Hamartar Unibertsala)-, eta horren bidez jakiten da zein materiari dagokion.

Trapagarango Udaletik adierazi dutenez, liburuak mailegatu eta hartzeko zerbitzua denboraldi batez eten egin da, arazorik ez sortzeko leku-aldaketa lanetan. Izan ere, ezinbestekoa da horrela egitea materiala behar bezala erregistratu eta ordenatzeko.

Udaleko arduradunek uste dute hilabeteen dena egongo dela prest udal liburutegi berrian. Material guztia ordenatua egongo da erabiltzaileek baliatu eta gozatu dezaten.

Trapagarangpo Udaleko Kultura Sailak uste du laster eman ahal izango dela zerbitzua instalazio berrietan, altzari guztiak muntatu eta gero, alegia. Ekipamendu berrian wifi gunea egongo da, bai eta umeentzako leku bat, txikienak irakurtzera zaletu daitezen, gazteentzako gunea bat, irakurgela batekin eta aldizkari eta prentsa gunea batekin, eta audio eta bideo espazio bat ere.